

Karaoke I. Lehiaketa

"Emakumeak kantuan"

"Emakumeak kantuan" Karaoke I. Lehiaketa, Serantes Kultur Aretoan (**SKA**) egingo da 2015eko urtarrilaren 3an goizez.
10:45ean hasiko da.

OINARRIAK

1.-**Parte-hartzea**: Santurtzin erroldatutako emakume guztiek hartu ahal izango dute parte, baldin eta lehiaketaren egunean 14 urteak beteta badituzte.

1.1.- Hiru kategoria ezarriko dira:

1.1.1.- 14 urtetik 25era (*)

1.1.2.- 26 urtetik 50era

1.1.3.- 51 urtetik 105era

(*) Lehiaketan parte hartu nahi duten 18 urtetik beherako gazteek honako oinarriekin batera dagoen 1. eranskina beteta aurkeztu beharko dute.

1.2.- Gehienez 50 plaza egongo dira.

1.3.- Parte hartzaileek izena ematen duten unean, antolakuntzak emandako zerrendatik aukeratuko dute kantatuko duten abestia.

2.- Izen ematea

2.1.- **"Emakumeak kantuan" Karaoke I. Lehiaketan** izena emateko Santurtziko Udaleko Gizarte Ekintza Arloko Emakume eta Berdintasun Zerbitzura jo beharko da (Murrieta etorb. 22. solairuartera, 11).

2.2.- Parte hartzaileek izena ematen dutenean **2na € ordaindu** beharko dute eta **hurrengo datuak eman**:

Parte hartzailearen izen-abizenak

Jaiotze data :

Helbidea :

Telefonoa :

Posta elektronikoa :

Kantatuko den abestia :

3.- Epaimahaia eta sariak

3.1.- Epaimahaia 6 lagunek osatuko dute eta besteak beste, herriko abesbatzako eta Santurtziko Udaleko Emakume eta Berdintasun Zerbitzuko kideak izango dira epaileak.

3.2.- Kategoria bakoitzeko sari bat egongo da, hurrengo hauek hain zuzen:

3.2.1.- Plaka edo garaikur bat

3.2.2.-Santurtziko abesbatzetako batekin bakarlari gisa kantatzeko aukera, gutxienez emanaldi batean.

3.3.- Epaimahaiak sariak aldatzeko eskubidea izango du egoki irizten badio, bai kopuruan eta bai kategorietan,.

3.4.- **“Emakumeak kantuan” Karaoke I. lehiaketan** parte hartzeak berez oinarriak osorik onartzea ekarriko du.

4.- Harremana, zalantzak eta iradokizunak

4.1.- Oinarri hauek argitaratu eta lehiaketa hasi arte antolatzaileei egiten zaizkien zalantza eta iradokizun guztiak onartuko dira.

4.2.- **“Emakumeak kantuan” Karaoke I. Lehiaketaren** antolatzaileekin harremanetan jartzeko e-posta idatzi beharko da hurrengo helbide honetara:

- mcarroniz@santurtzi.net

5.- Antolatzailea:

Emakume eta Berdintasun Zerbitzua / Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloa
Santurtziko Udala

6.- Laguntzaileak:

Santurtziko Abots Zuriak
Maitia Korala
Coral Sanpor
Coral AS.VI.

1. ERANSKINA

GURASOEN EDO TUTOREEN BAIMENA ADIN TXIKIKOEK "EMAKUMEAK KANTUAN" KARAOKE
I. LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO:

LEHIAKETAN ABESTUKO DUEN KANTAREN IZENBURUA:

Nik _____ jaun/andreak (NAN: _____)
eta nik _____ jaun/andreak, (NAN: _____),
biak ala biak adinez nagusiak eta Santurtziko biztanleak (Tel: _____ eta
e-posta: _____) _____ urteko adin txikikoaren
guraso (edo tutore) gisa hurrengo hau

ADIERAZTEN DUGU

Ohore, intimitate pertsonal eta familiar eta norberaren irudiaren eskubidearen Babes Zibilar
buruzko maiatzaren 5eko 1982/1 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera:

BEREN-BEREGI BAIMENA EMATEN DUGULA gure alaba den _____(e)k
parte har dezan musika arloan emakumeen parte-hartzea sustatzeko helburuz antolatutako
"Emakumeak kantuan" Karaoke 1. Lehiaketan, bai eta lehiaketaren oinarriak onartzen
ditugula ere.

Horrela bada, sinatu egiten dugu gure baimenaren seinale

.....n 20.....(e)koaren.....(e)an

* Baimena gaztearen guraso-agintea duten pertsonak sinatu beharko dute (bi baldin badira
biek. Zaintza eta tutoretza gurasoetako bakar batek baldin badu, nahikoa izango da horren
baimenarekin); izatezko edo eskubidezko banaketa eta dibortzio kasuetan, berriz, baimena
zaintza eta tutoretza duen pertsonak eman beharko du.